

UZTARRIA

GUKA



LAGUN ONAK FUTBOL KLUBEKO
EMAKUMEEN TALDEA

**30 URTE
HAZTEN**


I N N O V A
AZPEITIA
HORTZ KLINIKA



BEHAR DUZUN HORI
EMAITZA ONENAREKIN

Jose Artetxe 5
☎ 943-02 59 55

Miele

20 URTERAKO
DISEINATUTAKO
ETXETRESNA
ELEKTRIKOAK

Banatzeko ofizina

**MILAR
LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak

Zuñi Leku Hiribidea, 16
20720 Azkaltza - GIPUZKOA
943 951 897

**Go
Cooking
& Chef**
KOKATU DA ZUREA

Garaiko landareak



KIMUBAT
— GARDEN —



PENTSAMENDUA - ZIKLAMENA - PRIMULA - BELLIS - AK...

Lortu zure udazkeneko landareak gure gardenean! Urrestilla bidea - Azpeitia



www.kimubat.eus



UZTARRIA 264

2023-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
UNAX LARRAÑAGA.

Aurkibidea

- | | |
|---|--|
| <p>5 Korapiloa Mailo Oiarzabal, <i>Betikoak.</i></p> <p>6 Hantxe bertan Aiora Urbiet, Hego Korean bizi den azpeitiarra.</p> <p>8 Nire leihotik Haizea Salegi, <i>Isiltasuna.</i></p> <p>10 Iritziak Irati Aranguren, <i>Begiradak;</i> Hiromi Yoshida, <i>Hizkuntza aniztasuna.</i></p> <p>12 Erreportajea Lagun Onak futbol klubeko emakumeen taldeak 30 urte.</p> <p>18 Iritzia Oier Etxeberria, <i>Izen ala ezizen.</i></p> <p>20 Elkarrizketa Juan Jose Etxeberria, Deustuko unibertsitateko errektorea.</p> | <p>24 Guka Adimen artifiziala, arrisku baino aukera gehiago.</p> <p>32 Plazan Bazan</p> <p>34 Erretratua Rosario Ibaieta, merkataria eta eskulangilea.</p> <p>39 Lehiaketa</p> <p>40 Iritzia Imanol Amiano, <i>Tximinoentzako bazka.</i></p> <p>42 Erreportajea <i>Laguntza, gertutik urrunera.</i></p> <p>46 Iritziak Amaia Alberdi, <i>Gerorako bainua;</i> Ignacio Arakistain, <i>Musu truk.</i></p> |
|---|--|

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
azpeitia@ukt.eus
www.uztarrria.eus

Erredaktoreburua:
Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Maialen Etxaniz
Unax Larrañaga
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna
Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Haizea Salegi
Olatz Alkorta

Irati Aranguren
Hiromi Yoshida
Oier Etxeberria
Imanol Amiano
Amaia Alberdi
Ignacio Arakistain
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



Babesleak:





ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-60 34 47 AZKOITIA
Urbilarte 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

IRENE ALTUNA
SORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.irenealtuna.com



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 5808
Faxa.: 943 15 03 62

Luba
ahelularitza

Anahelularitza:
libros
libros
sonidoa

Gestioi larab
Finan administratza
Gestio imobiliaria

Tfno: 943-157 325 Fax: 943-157 375
Superan kalde: 49-4 Luba ahelularitza.com



**JARRI HEMEN
ZURE
IRAGARKIA**

Alertza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
alertza@alertzaautoak.com




EuroTaller MULTIMARKA ZERBITZUA

adi
ARTE ETA
DISENU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Tallia 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
www.adiarteeta.com
Matrikula urte osoan zeharrik

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urtel: 618 96 49 95 / Jm: 649 12 02 71
ikaargilana@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urtel.: 943 81 57 81

Betikoak



MAILLO OIARZABAL

Iritzi egile lana, iritzia ematea zein artikulua idaztea, kazetari batentzat izan daitekeen lanik errazena, erosoena, dibertigarriena dela irakurri nion aurreko batean idatziz ez ezik Espainiako telebistetako *sálvame-politika* tertulietan zein Twitterren –bai, badakit orain X dela, emaidazue denbora pixka bat– iritzia eman eta eman aritzen den kazetari bati. "Hiretzat izango duk", pentsatu nuen. Kazetari lanak baditu zeregin zailagoak eta garratzagoak, baina hiru hilean behin bi mila pasatxo karaktere hauek betetzeak ematen dizkidan lanak ez dira parte onekoak. Hobeto esanda, testua osatzea da errazen egiten dudana. Zerekin eta nola bete, karaktereok zeri eskaini; hori erabakitzeak ematen dizkit buruko minak. Gau batean bonbilla piztu, gai super interesgarri bat eta bonbillak berak baino distira gehiago duen enfokea hortxe, argi, garbi; bale gaitun! Biharamunean jaiki, bezperakoak hazitarako ere ez duela balio begitandu, argi, garbi; kaka zaharra. Segi pelotan. Eta horrela, bizpahiru egunez behin, ia hilabetez.

Banekien zer etorriko zen, aldizkaria berri eta lankideon artean txandaka betetzea dagokigun zutabetxo hau gehitu genionean. Lehendik ere mirezgarria eta ausarta iruditzen zitzaidan hilero edo bi-hiru hilean behin gurean argitaratzeko iritziak idazten zituzten herritarren ekarpena. Motzean zein luze, bat az edo besteaz, (niretzat) grazia gehiagorekin edo gutxiagorekin, idatziz zein irudiekin. Eta herriko aldizkarirako; askori *top lessarekin* pasatu izan zaion gisa, errazagoa baita etxekoetan baino urrutiko hondartzetan biluztea. Eta hala ere, zenbat eta zenbat zareten eta izan zareten etxe atarian gutxi-asko biluzteko ariketa eginez Uztarría aberastu duzuenak. Ez dakit inoiz behar eta merezi adina eskertu dizuegun, dizueten, baina ezinbestekoak zarete eta izan zarete.

Eta hemen nago beste behin, epe mugaren mugara iritsita, urriko aldizkaria labera sartzear eta maketaren zulo hau hutsik. "Iritzia ez ahaztu, e, Mailo", lankide-jefeak. Ahaztu... ahaztuta banu bai ondo. Farmaziatik irten, kotxean sartu, eta *Esto no!!!* irakurri dut Garmendipeko harmaila nagusiaren atzean Erromako Zubiaren koloreekin margotutako txabolan, pintura beltzarekin eta letra eta trazu traketsekin idatzita. Autotik irten, pixka bat gerturatu eta argazkia atera diot, garbi daukat artikulua hau webgunean argitaratzeko beharko dugun irudia horixe izango dela. Izarraizko Atean skate parke berria ireki zutenetik abandonatutako Garmendi Kampen, *Esto no!!!* ostadarraren gainean. Gure *jennihermosoak* futbolearen hasi ziren harri txintxardun anexotik gertu. Betiko leloaren betiko leloa, betiko leloen menderatu behar negargarria. ■■■

**BETIKO LELOAREN
BETIKO LELOA, BETIKO
LELOEN MENDERATU
BEHAR NEGARGARRIA**

Aiora Urbietta: "Seulen mugimendua da dena"

TESTUA: **NEREA URANGA**

ARGAZKIA: **UTZITAKOA**

Hego Korean, Seulen, bizi da duela bi urtetik Aiora Urbietta (Azpeitia, 1995). Gustura dago hiriburu handi hartako bizimoduarekin, baina "ziur" da Azpeititik hurbilagoko toki batera itzuliko dela bizitzera; noiz ez daki, ordea. Gabonetan bai, etxera etorriko da familiakoei urteroko bisita egitera.

Nolatan joan zinen Seulera bizitzera?

Kasualitatez izan zen dena. Estilismoa eta Moda Komunikazioa lau urteko gradua ikasi nuen Bartzelonan, eta ikasketak bukatutakoan, zerbait berria ezagutzeko gogoia nuen. Familia korearra zuen lagun bat egin nuen Bartzelonan, eta hark beti esaten zidan Korea asko gustatuko zitzaidala.

Unibertsitateko ikasketak bukatu orduko joan al zinen Koreara?

Bai, 2017an hilabetez oporretara etorri nintzen, baina azkenean, hiru hilabete egin nituen Korean. Oso gustura egon nintzen, eta Seulera bizitzera etorri behar nuenaren ideiarekin itzuli nintzen etxera.

Hala, orain bi urte Seulera joan zinen bizitzera.

Unibertsitateko ikasketak amaitutakoan, nire kontura sorkuntza lanean hasi nintzen Bartzelonan. Gero, ordea, pandemia iritsi zen, eta horrek eragin zuen geldialdiagatik ezin izan nuen nire proiektu profesionalarekin jarraitu. Orduan, bizitzera Seulera etortzea erabaki nuen. Urtebetez, Seulgo unibertsitate batean koreara ikasten jardun nuen, eta bitartean, bizitzeko diru pixka bat irabazteko, agentzia batean modelo lanean hasi nintzen.

Zer-nolako modelo lanak egiten zenituen?

Arropa markentzako lanak, Youtubeko bideoetarako kolaborazioak... egiten nituen. Hego Korean aisialdiko agentzia enpresak daude, eta enpresa horietan modeloek, abeslariak, dantzariak, aktoreak... oro har, artistek egiten dute lan. Modelo lana ondo etorri zitzaidan diru iturri bezala, baita jendea ezagutzeko ere.

Modelo hasi zinen, baina egun argazkilari lanetan ari zara.

Bai, agentzian argazkilari bat behar zutela aipatu zidan managerrak –Korearaino etorri, eta Bartzelonakoa dut managerra–, aurkeztu egin nintzen lan eskaintzara, eta orain argazkilari ari naiz. Beti gustatu izan zait argazkilaritza, eta erosoago sentitzen

naiz kamera atzeko lanean. Une batzuetan ondo etortzen da modelo jardutea, baina zailagoa da lana.

Beraz, kamera aurreko lanetik kamera atzeko lanera igaro zara.

Bai, esperientzia dut kameraren aurreko lanean, eta eskarmentu hori lagungarria da kamera atzean aritzeko; orain badakit artista berriak nola zuzendu behar ditudan kamera aurrean, baita haiek zer egoeratan dauden eta nola sentitzen diren ere.

Azpeitia eta Seul. Alde ederra egongo da, ezta?

Bai, Seulen dena mugimendua da, eguneko 24 orduetan zerbait gertatzen ari da. Azpeititik hona etorrira, zerbait arraroa sentitzen da; batetik, agobioa, baina bestetik, lasaitasuna. Bakoitzak bere bizitza egiten du hemen, bere bidea, eta anonimotasunean bizi zarela sentitzen duzu. Seulera etorritakoan, gauzak esperimintatzeko nire unea eduki nuen, ilea tindatuz, janzkera aldatuz... Ez nintzen batere epaitua sentitzen, ez nuen ez lotsarik, ez beldurrik, besteez ingatuz zer esango zuten.

Zenbatean behin etortzen zara Azpeitira?

Urtean behin, Gabonetan, familia osoa elkartzen garelako. Amama-eta galdezka hasi zaizkit Gabonetarako hegazkin txartela hartu al dudan.

Seulen zeren falta sumatzen duzu gehien?

Familiarena eta lagunena aurrena, eta gero, kulturarena. Esaterako, lanetik irtendakoan lagunekin zerbait hartzeko gelditzearen falta sumatzen dut, pintxo-potearena... Lagunekin eguneroko harremanak gertukoagoak dira Azpeitian; Seulen, baina, urrunagokoak dira: astean behin gelditzen naiz batzuetan, eta haiekin egoteko metroan ordubeteko bidaia egin behar izaten dut. Korean bizi naizenetik, Azpeitian festa asko ditugula ere ohartu naiz.

Zer gustatzen zaizu gehiena Seuldik?

Seulen egunero zerbait berria aurkitzen dut; gauza piloa daude egiteko, eta oso eskura. Adibidez, ikasketak bukatutakoan, sormenari lotuta profesionalki aurrera egiteko aukera gutxi ikusten nituen hor. Seulen, berriz, alde guztietatik azaltzen zaizkit aukerak, eta lanean ari naizen bitartean ikasten joateko aukera ikaragarria dut. Seulen bizi naizen bitartean ahalik eta gehien ikasiko dut, baina etxe aldera begira ere banago, Azpeititik gertuago lan aukeraren bat ateratzen den adi. ■■■



Isiltasuna



ARGAZKIA ETA TESTUA: **HAIZEA SALEGI**

Argazkiari begiratu eta isilik geratu naiz, hitzak desagertu zaizkit.

Basoko isiltasunak harrapatu nau, eta ez dakit entzuten dudana haizea edota nire arnasa den.

Basoko isiltasunean, belar eta sasi artean emandako pausoen soinua, zuhaitzen dantza, txorien elkarriketak eta hostoen hegaldiak entzuten ditudala ohartu naiz, eta orain ez dakit basoak isiltasunik ba ote duen ere.

Zer da isiltasuna? Presentzia edo absentsia?

Ez dut ezagutu isiltasun absoluturik, baina bai barneko zaratak ito dizkidaten zenbait isiltasun.

Liburu bat irakurtzeak edota ekaitza entzunez lo hartzeak isiltzen naute, isiltzen zaituzte.

Argazkiari begira hitzik gabe geratu naiz berriro, etxola osatzen duten harriek isiltasuna zer den jakingo ote duten pentsatzen jarrita despistatu naiz, eta konturatu gabe, testu honi amaiera emango dioten azken hitzak idatzi ditut. ■■■







IRATI ARANGUREN

Begiradak

Gustatzen zait behatzea. Eroso sentitzen naizen txokoetan bizitzari so egotea gogoko dut, hala nola mendian, itsasoan, lagunartean, edo etxeko terrazan. Informazio ugari jasotzen dut une horietan neure burua zein bizitza ezagutzeko. Badago zer ikusi, zer aztertu eta zer hobetu.

Nerabezaroan, "nolako mutilak gustatzen zaizkizu?" galdera askotan entzun nuen. Mutilei buruz soilik galdetzen zidaten, zergatik ote? Nik sekula ez nuen jakin ziurtasunez erantzuten. Hasieran, ez nekiela esaten nuen, baina lagunartean integratzeko edo, erantzunak asmatzen hasi nintzen. Nere baitan, orde, besteen begiak gustatzen zitzaizkidala sentitzen nuen, bazuten zerbait berezia. Jakitun

nintzen, jende berria ezagutzean, begiradan erreparatzen nuela lehendabizi.

Begietan zer ikus daitekeen? Iridiologo bati luzatuko nioke galdera, maite baititut beraien jakintzak. Baina nire jakinduriatik esan dezaket, begietan irakur daitezkeela isilik gordetako mezuak, senti daitezkeela atera gabeko sentimenduak eta ikus daitezkeela maitasunak sortzen duen dirdira. A zer-nolako mundua kanika nimiñoaren barruan!

**NERABEZAROAN,
"NOLAKO MUTILAK
GUSTATZEN ZAIZKIZU?"
GALDERA ASKOTAN
ENTZUN NUEN**

Nire gaurko gogoeta begietara begirako komunikazioari buruz da. Gai al gara egunean zehar topo egin dugun ororekin aurpegiz aurpegi komunikatzeko?

Hortxe ditugu pantailak. Lantokian lankideari galdera egiteko mugitzen al dut burua? Edo hark nire ondora etorri eta zerbait galdetzean, altxatzen al dut kokotxa ordenagailutik? Sakelako telefonoarekin ere berdintsu gabilta.

Haratago noa. Gailu teknologikoak tartean ez daudenean, gai al zarete ondokoari begietara begiratzeko?

Badut etxean lau hankan ibiltzen den txikitxo bat, bi kanika beltz-beltz dituen. Begirada zuzena eta garbia du. Nik ere hala begiratzen diot. Baina adin kontua ote?

HAUXE BAI JENEROA!



Harremanak aztertuta ondorio hau atera dut: zenbat eta helduago izan, orduan eta gehiago kostatzen zaigu begietara begiratzea. Fidagaitzago garelako ote? Edo aurreiritziak ditugulako? Elkar kritikatzeko dihardugulako agian? Sekretuak ditugulako bestela? Eta zu, nolako begiradekin bizi zara?

Ederra da begitik begirako konexioa ikustea, barrutik barrura ari garela sinestea, bihotzetik bihotzera. Baina hori lortzeko, barrua ikusten utzi behar zaio aurrean dugunari. Nola dio esaerak? Bihotz ireki batek ezin dio beste bihotz ireki bati uko egin, margaritek eguzkiari bizkar eman ezin dioten gisan. Gerlari moduan bizitzeko hezi gaituzke, baina geure osasunerako ez ote da hobe

soinean daramatzagun geruzak askatzen joatea?

Beira taldearen abesti batek honela dio: "Beldurra hartu zienez pare bat gerlari latzi, ezpata erosi zuen eta armadura jantzi. Azaletik burdinera bi zentimetro distantzi. Armadura herdoildu da eta azalera itsatsi". Armadura kenduta hasi gaitzen bada parkeko aulki hutsetan begiradak elkartzen. Begiradetan estali ezinezko lotsak ikusi ordez, sua izan dadila sortzen dena; begiradek arima zeharkatuz ortzi mugaraino.

Gogoeta honekin jarraituko dut, nire txokotik, bizitza behatzen dudana bitartean. Erren egiten baitu. Begitik begirako jende zuria era badela otu baitzait. Politikoen begiradek ere begietara begiratzen dute. ■

HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Hizkuntza aniztasuna

Biblian kontatzen den Babelgo dorrearen kontuak adierazten du munduan hizkuntza bakar bat egotea ideala dela (hizkuntza asko izatea zigorra dela esaten baitu). Bai, hizkuntza desberdin asko dauden mundu honetan, hizkuntzek gatazkak sor ditzaketela eta ama hizkuntza ez den hizkuntza bat ikastea zeinen nekeza den pentsatuta, hizkuntza asko egotea desabantaila dela dirudi. Baina zerbait polita ere badakar hizkuntza aniztasunak; kultura desberdinak. Hizkuntza bakoitzak bere kultura daukalako. Eta kultur lan bera, hizkuntzaz aldatuz gero, beste gauza bat bihurtzen da. Adibidez, Japonian rakugoa izeneko ahozko tradizioa daukagu. Eta rakugo lan batzuk euskaratuta eman izan ditugu Euskal Herriko zenbait lekutan. Horrek, euskaldunok kanpoko kultur arlo bat ezagutzeko egokiera izateaz gain, beste balio bat ere badu, hau da: rakugo kontalari euskaldunek rakugo lanak euren baitan ederki ondu eta euren mundua sortu dute berriki. Beraz, bi hizkuntzek kultur arlo batean topo egin dutelako, euskararen munduan beste genero bat sortu da. Hori hizkuntza aniztasunak ekarri duen aberastasuna da. ■





30 urte joko zelaia irabazten

30 urte bete dira aurten Lagun Onak futbol klubaren emakumeen taldea osatu zutenetik. Hiru hamarkada igaro dira, eta ezin ahaztu urte guztiotan egindako lan gogorra, hain zuzen ere, futbolarekiko zaletasuna egungo belaunaldietako emakumeek txikitatik goza dezaten ahalbidetu duena.

Testua eta argazkiak: **Unax Larrañaga eta Nerea Uranga.**



Duela hiru hamarkada, emakume talde batek bere historia idazten hasteko ordua zela erabaki zuen Garmendipeko zelaian. Pasioz, ausardiaz eta kirolarekiko zaletasun amorratuaz, garai horretako Azpeitiko futbolaren mugak zeharkatuko zituen talde bat osatu zuten.

Hogeita hamar urte igaro dira sorrera horretatik, eta hamarkada hauetan zehar, taldean jokatu duten emakumeek ausardiaz eta esfortzuz osatutako sarea ehundu dute. Elkarri lagunduz, joko zelaiaren mugak gainditzen dituzten aurreiritziei eta erronkei aurre eginez.

Lagun Onak klubak 50 urte bete zituenean sortu zuten taldea, guraso batzuen proposamenaren ondorioz. Iñaki Arrieta *Pipillo* (Azpeitia, 1950) izan zen haietako bat, eta eskaerarekin batera eskaintza ere izan zuen, taldea entrenatzeko proposamena egin baitzioten. Hasiera batean aldi baterako izango zela esan zioten, baina bederatzi urtez jarraian gidatu zuen taldea Pipillok. "Ahoz aho zabaldu zen deialdia, eta neska asko agertu ziren futboleko jokatze prest. Talde bakarra zen hasieran, eta bi urteren ostean mailaz igo ginen, eta ondoren goren mailan ibiltzea ere lortu genuen. Futbolari oso onak genituen taldean, eta maila ona ematen genuen". Bere kasa ikasi zuen entrenatzaile lana Pipillok. "Ez neukan entrenatzaile ikasketarik, eta nik futbolari izandako sasoian ikasi nituen ariketak egiten genituen. Taldean hasi ziren

Lagun Onakeko emakumeen talde nagusia, Garmendipen entrenatzen.



Argazkietan, ezkerretik eskuinera, Iñaki Arrieta *Pipillo*, Mirian Arrieta, Aiora Iriarte, Kris Fernandez eta Unai Urbizu.

nesken sasoiarekin eta haien futbol mailarekin guztiz harrituta gelditu nintzen. Oso ondo moldatzen ziren".

Mirian Arrieta (Azpeitia, 1979), izan zen hasierako taldeko futbolarietako bat. Pipilloren alaba da Arrieta, eta harengandik jaso du futbolarekiko zaletasuna. "Ingalaterran nengoen, hilabete pasatzera joanda, eta aitak deitu zidan Lagun Onakek emakumeen taldea osatu behar zuela esanez, eta esan nion entrenatzaileari abisatzeko talderako nire izena emateko. Hara non ezustekoa, aitak erantzun zidanean bera zela entrenatzailea".

Lan gogorraren emaitzak

Hasierako urte haiek ez ziren errazak izan Pipillok gidatutako futbol taldearentzat. "Klubaren zuzendaritzaren aldetik ez genuen laguntza askorik jasotzen. Entzun izan genuen gu 'gastua besterik' ez ginela. Kamisetak ere soberan zeudenak ematen zizkiguten, eta bertan zelai ederra izan arren, harri txintxorretan jokatzera bidaltzen gintuzten".

Mirianek argi dauka taldekoen ahaleginagatik eta ilusioagatik egin zutela aurrera. "Nesken futbol taldearen alde egindakoa taldetik bertatik eta taldekoek egin dutenagatik izan da. Beti sentitu izan dugu Garmendipe ez zela gure lekua, baina guk oso giro ona genuen taldean, lagunarte ederra genuen, oso ondo pasatzen genuen eta aurrera egin genuen".

Kris Fernandezek (Azpeitia, 1982) eta Aiora Iriartek (Azpeitia, 1979) gogoan dituzte futboleko lehen urte haiek, 14 urte bete orduko hasi ziren jokatzeko biak, eta futbolarekiko zuten zaletasunak zein inguruko babesak ahalbidetu zieten aurrera egitea. "Oso oroitzapen ederrak ditugu, futbolaz gain, lagunarte ederra genuelako", azaldu du Iriartek. "Ni ez naiz gogoratzen partida batean edo bestean gertatu zenarekin, baina gogoan ditut aldageletako giroa eta zapatu gauetako parrandak. Giro bikaina genuen, eta uste dut hori antzematen dela gaur egun ere, oraindik ere harremanetan jarraitzen dugulako taldekide ginenok", adierazi du Fernandezek. Hala ere, belarra urtean bi aldiz "zapaltzen" zuten, "eguraldi on-ona egiten zuenean, belarra



oso ondo zegoenean, eta beste aukerarik ez zegoenean". "Gauza askok" egin behar zuten bat neskek belarretan jokatu ahal izateko.

Emakumeen futbolak gaur egun hartu duen garrantzia pentsaezina zen garai batean Fernandezentzat. "Neskak futbolearen profesional izatera iristea ez nuela ezagutuko pentsatzen nuen. Emakumeen futbolak hartu duen indarra izugarria da, eta urte gutxian jauzi izugarria egin du". "Oraindik ere ez dago mutilen futbolarekin alderatzerik, ezta gutxiago ere", dio Iriartek. Fernandezek ere ez du uste parekatuko denik, baina lehen ere ez zuen uste gaur egungo egoerara iritsiko zenik, beraz, ezin esan. "Emakumeen futbola zenbat eta gehiago hazi, baliabide gehiago izango dira haientzat, eta aukera gehiago. Baliabide eta bitarteko onak izatea funtsezkoa da. Gu harri txintxorretan jokatzen ibiltzen ginen, lurrera erortzeko beldurrez, minik ez hartzeko". "Eta hala ere gustura ibiltzen ginen", gehitu du Iriartek.

Kopuruak goraka

Hiru hamarkada pasatu dira, eta egoera aldatu egin da. Emakumeen talde nagusiaren entrenatzailea izan da azken hiru denboraldietan Unai Urbizu (Azpeitia, 1991), eta orain dela bi urtetik bera da Lagun Onakeko emakumeen futbol taldeen koordinatzailea. "Azken hiru urteotan behintzat, ikaragarri igo da futbolearen dabilen neska kopurua. Aurten 2015ean jaiotako neskak hasiko dira lehenengo aldiz, eta horiek kontuan hartuta, 180 jokalaritari inguru daude klubean. Duela hiruzpalau urte 80 jokalaritik behera genituen".

Urbizuren ustez, ahoz ahokoak eragina izan du. "Ingurukoek eragin handia dute; jendea gustura badabil, lagunak animatu egiten dituzte. Ikusgarritasunak ere eragin izugarria izan du, eta gainera, emakume futbolari erreferenteak dituzte orain. Horrek ilusioa piztu eta indarra ematen die". Hala ere, emakume entrenatzaileen falta sumatzen du Urbizuk. Entrenatzaile titulua atera dezaten "amua botatzen" saiatzen dela dio, baina "emakume gutxi animatzen dira" lan hori betetzera.

**"OROITZAPEN
EDERRAK DITUGU,
FUTBOLAZ GAIN
LAGUNARTE EDERRA
GENUELAKO"**

**GAUR EGUN 180
EMAKUME INGURU
ARI DIRA LAGUN ONAK
FUTBOL TALDEAN
JOKATZEN**



Garai berriak: iraganeko lanaren fruitua

Lagun Onak futbol klubeko emakumeen lehen taldeak Eguzkiñe Peña (Azpeitia, 1992) entrenatzailearen gidaritzapean hasi du denboraldia. Ibilbide luzea du Peñak futbolean, 12 urterekin hasi zen Lagun Onaken, eta denboraldi ugari egin ditu Garmendipen. Etenik izan gabe, futbolari eskaini dio bere bizitza Peñak: Realean sei urtez ibili zen azpeitiarra, eta Oiartzunen beste bi denboraldi egin zituen. Gero, lesio bat izan, eta berriro etxeko taldera itzuli zen. Unai Urbizuren ondoan bigarren entrenatzaile aritu ondoren, hasi berria du talde nagusiaren ardura bere esku duen aurreneko sasoia.

Joane Korta (Azpeitia, 1999) eta Malen Astigarraga (Azpeitia, 1998) dira Lagun Onakeko talde nagusiaren hiru kapitainetako bi. Horiek ere, urteetan futbolean jardun ondoren, Lagun Onaken aurkitu dute beren habia. Txikitatik izan dute futbolerako zaletasuna hirurek. Futbola izan dute kirol kuttuna.

Izan ere, badu zerbait futbolak hiru jokalaririk joko zelaiari lotuta mantendu dituenak. Astigarragaren kasuan, futbol taldean lagunak izateak eragina izan du: "Kuadrillakoak ditut taldean, eta hori amu ona da". Kortaren esanetan, futbol ibilbidean izaten dira "gorabeherak" eta futbola uztea pentsatzen den uneak, baina udako atsedena eta gero, "futbolean jarraitzeko gogoia" pizten zaie berriro. "Gainera, taldearekiko loturak, giro onak eta eroso sentitzeak ere eragin handia dute futbolean segitzeko", gaineratu du Kortak.

Peñarentzako lan iturri izatera igaro da futbola: "Niretzat futbola ogibidea izan den arren, taldearekiko konpromisoa izan da guztiok lotuta mantendu gaituena. Taldearekiko lotura sentitzea, datozen emakumeentzat erreferente izan zaitezkeela jakitea, zaindua izatea eta zuk ere zaintza hori ematea... Hori guztia du berarekin futbolak, eta hori da Lagun Onaken emakumeen taldean sentitzen duguna".

Lagun Onakeko futbol klubeko emakumeen taldearen 30 urteurrenari helduz, hasierako



Joane Korta,
Eguzkiñe Peña eta
Malen Astigarraga.

garaietan zituzten baliabideen eta egungoen arteko aldeak azpimarratu dituzte. Aurten, aldagela eta arropa berria dituzte, baita zelaia eta gimnasioa erabiltzeko aukera ere, eta lehengo baldintzekin alderatuta, gauzak aldatu direla diote. "Esan beharra dugu, ordea, Lagun Onakeko aurreko emakumeen taldeetan ibilitakoek ez balute guzti hori borrokatu, gu ez ginatekeela gauden tokian egongo, ezta ditugun baldintzak izango ere. Eskerrak emateko ordua badugula uste dut", nabarmendu du taldearen entrenatzaileak.

Kortak eta Astigarragak azken urteotan emakumeen futbola izaten ari den ikusgarritasuna azpimarratu dute, eta egun jendeak emakumeen futbol partidak ikusteko duen joera ere "positiboa" dela diote.

Talde osoa, talde teknikoa barne, emakumez osatu dute aurten lehenengo aldiz, eta horrek taldeari "sentsibiltate berezia" eta emakume entrenatzaileei "ikusgarritasuna" ematen diela adierazi dute. "Eredu gisa hartzeko moduko kideak ditugu, eta horrek emakumeen futbolari bultzada eman diezaioke", dio Kortak.

Azken urteotan emakumeen futbolak herrian izan duen gorakadaren zergatien artean, "proiektu bat" izatea dela azpimarratu dute. "Orain arte *proiektu* hitza ez da inoiz egon nesken futbolari lotuta, eta proiektu hori egiteak eskailera bat sortzea ahalbidetu du, talde sendo bat eratuz", dio Astigarragak.

Peñaren ustez, iraganeko ahaleginen emaitzak dira egun bizi dituztenak. "Ikusgarritasunak eragina izan du, eta koordinatzaileak [Unai Urbizu] egindako lana ere antzeman da. Talde bat osatu ezinda ibiltzetik, bi talde izatera igaro gara, neska gehiagok ematen baitute izena futboleko jokatzeko. Azkenean, duela 30 urte lehenengo futbolari haiek ereindako hazia ari da bere fruituak ematen". ■■■

**"TALDEAREKIKO
LOTURAK, GIRO ONAK,
ETA EROSO
SENTITZEAK ERAGIN
POSITIBOA DUTE"**

**"BERAIEK EZ BALUTE
GUZTI HORI
BORROKATU, GU EZ
GINATEKE HEMEN
EGONGO"**

Izen ala ezizen



OIER ETXEBERRIA

Paul Urkijoren pelikulak gogorarazi zigun, izena duena badela. Eta Oskorriren iritiz, berriz, euskaraz, lau gauzak izen bat dute eta gauza batek lau izen.

Gizakion kasuan, modak erasanda jartzen zaizkie haur jaio gabeiei betiko eramango dituzten deiturak. Garaiz aurretik izanda ere zoriontzeko ez da berandu; esperoan dagoenari, zer den galdetzea baino, aproposagoa delakoan izenagatik interesatzea. Ezbairik gabe, nortasun agirian karga ezberdina dute Hermenegildok, Anek, Eustakiak eta Unaik.

Izen ala ezizen, besteek ezarriak konponbiderik ez duelako edo, gainbeheran hasten direnero aldatzen dute musika taldeek beraiena. Proiektu berriak, gauzatxoak datoz eta ekdisi moduko bat.

Negozio askok fundatzaileen siglak daramatzate karteletan, eta zenbaiten originaltasun mailarekin kasik horrela hobe. Ogi Eder, Ogi Berri, Ogi Ona, Labe Txiki, Labe Goxo, Labe Gorri... oinarritzko lehengaiak beti dira irina eta ura, baina bota ziezaiokeen bakoitzak gatz apur bat bereizgarri. Etxebizitza, elkarte edo antzekoez Julian Alustiza *Aztirik* bere *Euskal baserriaren inguruan* liburuan dio, gaur egun badela hamaika izen txepel, ez direnak ez ur eta ez salda: Gure Kabi, Leku Eder,

Xoko Ona edo Nahi Genuena kasu. Aldiz, Sagasti Zabal, Otalora edo Lizarribar gisakoek esanindar paregabea dutela toponimian.

Gure pelutxeak Pintto, Ricky edo Argi izan ziren arren, jada zaharkituta gelditu dira. Iaz, esaterako, Max, Bruno, Nala eta Kira izan ziren inguru honetan gehien errepikatutako zakur izenak. Gure osabaren txakurra Lulu da. Ezagutzen dut beste Lu bat ere, baina hark nonbait *Lowe* idazten du.

Dokumentu ofizialetan era batera agertu arren, egunerokoan oso ohikoa da laburduretara jotzea. Senide bati, ezinegon sortzen zion Marijo, Juankar edo Eli bezalakoak erabiltzeak. Horregatik aldarrikatzen zuen deiturarik egokiena alfabeto greziarreko PI zela, inolaz ere laburtu ezina. Hala ere, gutxi fidatu, Bizkaian Ea herriari, *Ie* esaten badiote.

Matematikako ekuazioetan X-k edozein balio har dezake, eta ezezagun bati deitzeko ere edozein letrak balio du. Aitzitik, aurrenengo ezezagunari ia beti X esleitzen zaio. Zenbait

MAX, BRUNO, NAIA ETA KIRA IZAN ZIREN INGURUAN GEHIEN ERREPIKATUTAKO ZAKUR IZENAK

teoriaren arabera, aljebra ekialde hurbilean garatu zenez, iberiarrek formula matematikoak ulertzeko zailtasuna zuten, eta horregatik arabierako "ezezaguna" hitzaren adiera hoskide bat erabiltzen hasi ziren. Baliteke, ordea, laburpen soil bat edo ausaren ondorio izatea ere.

Vintagea modernoa den honetan, txioherria *Hypothymis azurea* izatetik X izatera pasatu da, aizkolarien txapelketa nagusia Sherpa.ai dugu eta sare sozialen munduko enpresa talderik garrantzitsuen Meta.

Ohituta gaude saskibaloi eta eskubaloi taldeek enpresa iragarlearen irudia klubaren jatorrizkoari eranstera. Ildo berean, txirrindularitzako mailloteek batere disimulurik gabe babesleen izen segida hartzen dute denboraldi bakoitzean, Europako banketxeen eta telefonia konpainien zerrenda buruz ikas dezagun. Donostian Bilintxi eskainitako kale kaskar bat dago, liburutegia bataiatu gabe, eta Zestoan Pio Baroja plaza. Oraingo joeran, inork futbol zelairen bati bere izena jar diezaioten nahi badu kostatuko zaio.

Esaerek bestela badiote ere, izango dira izanik gabeko izen, eta izenik gabeko izanak. Alegia, TRX eta *Brunch* berriak iruditu arren, abdominalak eta hamaiketako aspaldikoak direla. ■



www.gukazerbitzuak.eus

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia



Atari digitalak

06



Diseinu
lanak



Telebista

MARKETIN eta KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

05



Webguneak eta
marketin
digitala

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa

B K eto  UH  ZH

• Araba kalea 27, 20800 Zarautz (Gipuzkoa) • Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

• 943-81 38 41 • gukazerbitzuak@ukt.eus

"Aldaketak eta berrikuntzak abiadura izugarrian datoz"

JUAN JOSE ETXEBERRIA DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Azpeitiar batek utzi eta beste batek hartu du Deustuko Unibertsitatearen buruzagitza. Ondo ezagutzen duen etxe erraldoia gidatzea dagokio orain Juan Jose Etxeberriari. Udaberrian izendatu zuten, ikasturte berria hasi besterik ez da egin, ardura berrira egokitzen ari da, "ikasten", baina garbi ditu erronkak.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Deustuko Unibertsitatea**.

Ikasturtearen irekiera ekitaldiaren biharamunean hartu du Juan Jose Etxeberriak (Abaltzisketa, Gipuzkoa, 1966) Uztarrria, bezperan berritutako "indarrak" hauspotuta. Landetan hazi, Betharram eta Iraurgi ikastetxeetan ikasia, oso gaztetatik izan zuen harremana jesuitekin, eta Loiolan bizi zen dagoeneko Iraurgin ikasten ari zen bitartean. 1984an sartu zen Jesusen Lagundian, eta erakunde horretan ardurak ez zaizkio arrotzak. Horietan berrienari, Deustuko Unibertsitatearen errektoretzari, eutsi dio orain. Deustuko ikasle ohia, Zuzenbide Fakultateko dekanorde, Izaera eta Misioko errektoreorde; Zuzenbide Fakultateko irakasle titularra eta Unibertsitateko Elkarteko eta 2030 Agendako errektoreorde izana da. Azpeititik kanpo urte gehiago egin ditu herrian baino, baina familiarengana eta herriko lagunengana itzultzen da ahal duenetan.

Apirilean izendatu zintuzten errektore eta uztailean izan zen zure kargu hartze ekitaldia. Kargu berrira egokitzen ala dagoeneko martxa hartuta?

Hasieran denbora behar izaten da, kargua pixka bat gehiago ezagutzeko eta. Egia da ni zortzi urtetan izan naizela errektoreorde eta esan

daiteke etxea barrutik ezagutzen dudala; pertsonak, kudeaketa eta identitatea izan dira nagusiki jorratu izan ditudan arloak. Baina errektore izateak beste ikuspuntu bat eskatzen du, baita beste lidergo bat ere. Horrek kokatzea eskatzen du. Deustuko errektore lanak jendearekin egotea esan nahi du, eta erakundeekiko harremana ere nahiko zabala da; errektoreorde gisa, horrelako ardurarik ez nuen inoiz izan. Esango nuke oraindik ikasten ari naizela eta asko dudala oraindik ikasteko.

Deusturen zuzendaritza ez zitzaizun arrotza, baina errektoreorde izatetik errektore izaterako jauzi horretan, zein esango zenuke dela alderik handiena?

Gure unibertsitatean ardurak dituztenek, errektoreek edo dekanoeak, erabakimen handia dute, beraiek gidatzen dute eguneroko jarduna, nolabait esateko. Gero kontseilua dago, gai estrategikoak lantzeko eta hausnartzeko. Errektorearena lidergo berria da, desberdina. Aldaketa da, zalantzarik gabe, errektoreorde izatetik errektore izatera igarotzea. Erabaki asko daude hartzeko, eta lana zein erabakiak ez dira errektorearen kontua bakarrik; alde horretatik, oso pozik nago dugun lantaldearekin, talde lana oso garrantzitsua da niretzat. Denon artean har



ditzakegu eta hartuko ditugu erabaki asko, baina azken-azken ardura errektorearena da, hori horrela da. Unibertsitatearen beraren joerei adi egotea dagokit, politikak markatzea. Baina, esan bezala, ez naiz horretan bakarrik sentitzen, taldeko lanarekin oso-oso pozik nago; ikusgarriak dira jendearen konpromisoa eta inplikazioa gai eta arlo guztietan, unibertsitatea aurrera bultzatzeko.

Jesuiten Loiolako probintziala izan zinen 2008tik 2014ra. Ardura hark ba al du orain hartu duzunaren antzik?

Ardura desberdinak dira. Probintzialak beste arlo eta erakunde batzuk ere ukitzen ditu; finean, Jesusen Lagundiaren eremu jakin horretako erakunde guztien arduradun nagusia da probintziala. Deustuko errektoreak, aldiz, erakunde bakarraren ardura du, unibertsitatearena. Hori bai, erakunde oso handia da Deustu: 1.500 langile eta 15-16 mila ikasle ditugu.

Jose Maria Guibertek lekukoa hartu duzu. Azpeitiar batek utzitako tokia beste azpeitiar batek hartu du Deustuko buruzagitzan. Datua da ala bitxikeria hutsa?

Nik esango nuke bitxikeria dela. Ez gara azpeitiar asko jesuitak, eta bitxia da, bai, horrelako kargu batean batek beste bati lekukoa ematea. Uste dut neu naizela Jesusen Lagundian sartutako azken azpeitiarra.

Hori bai dela datua.

Bai, hala da. Oker ez banago, Jose Mariren [Guibert] ondoren jesuita egin zen hurrengo azpeitiarra izan nintzen, eta ez dut uste ni baino azpeitiar gazteagorik dagoenik Jesusen Lagundian une honetan. Eta 1984an sartu nintzen ni.

Unibertsitate katoliko pribatua da Deustu, erlijioak pisu asko galdu duen gizarte batean. Gaur egun jesulagunen marka unibertsitatean nola edo zertan islatzen dela esango zenuke?

Unibertsitatea gure izaerari lotuta dago. Unibertsitate katolikoa da gurea eta Jesusen Lagundiaren gidaritzapekoa. Gure nortasuna eta bisioa arlo guztietan azaltzen dira. *Mundu berri baten alde elkarlanean* da momentu honetan Deusturen leloa, eta uste dut esku artean dugun lana islatzen duela. Munduari eta gizarteari begiratzea dagokigu, gure nortasunetik. Jesusen Lagundiaren nortasunean beti egon dira fedea, noski, eta justizia, adiskidetasuna... Azken urteetan adiskidetasuna izan da lagundiaren ardatza; adiskidetasuna jaungoikoarekiko, gizartearekiko, ingurumenarekiko eta gurekiko.

Hor kokatzen da gure lana, eta uste dut unibertsitatean ere saiatzen garela islatzen, plan estrategikoaren bidez hainbat arlotan txertatuta, irakaskuntzan zein ikerketan. Esaterako, uste dut erronka polita dugula esku artean gaur egun, ikerketa nola bideratu eta nola fokalizatu. Jakintzaren sorkuntzan eta transferentzian badugu zer landua, egungo gizartearen erronka handiak identifikatzetik abiatuta: injustizia, klima aldaketa, teknologiaren mundutik datozen aldaketak... Adibidez, adimen artifiziala badator, edo hemen dago jada, eta jakin behar dugu zein diren eskaintzen dituen aukerak, eta zein oztopo ekarriko dituen ere bai. Unibertsitate gisa badagokigu hori ikertzea eta ondo aztertzea; gainera, irakaskuntzaren ikuspuntutik ere berrikuntzak ekarriko ditu, dudarik gabe. Gure balioak egungo gizartean nola bideratu ikusi behar dugu, pertsonaren duintasuna bultzatzeko, eta uste dut alde horretatik guztiok egin dezakegula lan, sinestunek zein sinestun ez direnek.

Eraldatzeaz mintzatu zinen kargua hartzerakoan. Deusturen gaur egungo asmoa "gizartea eraldatzen laguntzea" dela esan zenuen, besteak beste. Zer eta zertarako eraldatu?

Saiatzen gara pertsonaren garapen integrala lortzen, eta noski, baita gizartearen eraldaketa ere; eta beti gizartearen beharrak kontuan hartuta, gizarteari eta behartsuenei lotuta. Uste dut begirada hori, ikuspuntu hori, ezin dugula galdu. Behartsuei begiratu behar diegu, batetik, eta gazteei, nola ez, bestetik; gazteekin egiten dugu lan, eta horien gogoak ere oso kontuan hartu behar ditugu. Eraldaketa arlo guztietan bilatu behar dugu, baina horretan ez gaude bakarrik; erakunde publikoekin, izaera soziala dutenekin, erakunde ekonomikoekin edota kulturalekin batera egin behar dugu lan. Errealitatearekin oso konprometituta egotea dagokigu eta denon artean egin behar dugu lan.

Hizkuntza politika berariaz jorratzeko errektoreordetza berreskuratu duzue. Zergatik?

Betidanik eduki dugu euskararekiko konpromisoa, gure nortasunean dago hori. Euskal Filologiako lehen fakultatea Deusturena izan zen. Euskarak presentzia nahiko nabarmena dauka gure ikasketetan, baita gure eguneroko harremanetan ere; Gipuzkoan pixka bat gehiago Bilbon baino, hori ere bai. Bestetik, ingelesaren erabilera ere gero eta nabarmenagoa da



Etxebarria, ikasturte hasierako ekitaldian. DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

"UNIBERTSITATEAREN BERAREN JOEREI ADI EGOTEA DAGOKIT, POLITIKAK MARKATZEA"

"SAIATZEN GARA PERTSONAREN GARAPEN INTEGRALA ETA GIZARTE ERALDAKETA LORTZEN"

"GURE KONPROMISOA HUMANISMOAREKIN DA, IKASKETA GUZTETAN, ESANGO NUKE"

unibertsitatean. Nik beti esaten dut ingelesa bultzatuko dugula, baina horrek ez duela esan nahi euskara ez dugunik bultzatuko, gehiago bultzatu behar dugula baizik. Uste dut beharrezkoa dela hizkuntza politikarako errektoreorde bat izatea.

Zein dira zuen unibertsitatearen lehentasunetako premiak, erronkak?

Ez dakit premia den, baina aukera estrategiko gisa asko ari gara bultzatzen sareko lana eta gizarte eragina. Aukera politak daude arlo horretan. Hezkuntza eskaintza dibertsifikatzea eta berritzea ere behar-beharrezkoa dugu; aldaketa handiak datoz, bai sozialak eta bai demografikoak, lehen aipatu ditudan gizartearen joerak, eta horrek eraman gaitu hemendik urte batzuetara zer eskainiko dugun hausnartzera. Zerbait egin dugu horren inguruan, baina etengabeko prestakuntzari arreta handiagoa jarri behar diogula iruditzen zait, hori gehiago landu. Aldaketak eta berrikuntzak abiadura izugarrian datoz, eta lehen aipatutako ildotik, uste dut indar gehiago egin beharrean gaudela ikerketaren arloan. Azkenik, unibertsitateko elkartea sendotzea bilatzen dugu; talde lanean oinarritzen gara, eta taldea eta elkartea zaindu egin behar dira.

Unibertsitateak gizartearen eta ekonomiaren beharrak asetzerantz bideratuta, jakintza edota pentsamendu kritikoa ez al dira neurri batean lausotu?

Askotan hitz egin dugu horretaz. Noski begiratu behar diogula ekonomiari, eta ekonomia, gizarte zein kultur eragileekin harremanetan egon behar gara, baina unibertsitate gisa balioak, konpetentziak eta pentsamendu kritikoa landuta. Guk proiektu guztietan txertatzen ditugula esango nuke, zeharkako gaitasunak ezarri. Gure konpromisoa humanismoarekin da, ikasketa guztietan, esango nuke.

Zenbat urterako ikusten duzu zure burua errektoretzan?

Galdera zaila [barrez]. Normalean lau urterako izendapena izaten da, gero beste hiru urterako berritzen da, eta hiru urte gehiago luzatzeko aukera ere izaten da. Horrela, gehienez hamar urte bete ditzakezu karguan. Jesuita izanda, esaten didaten arte egongo naiz ni. Begiratu behar dena da nola dihoan unibertsitatea, eta laguntzen dudana ala ez. Alde horretatik, libre sentitzen naiz. Irakakuntzan aritu naiz urte askotan, eta oso pozik, gainera; eta beste hainbat arlotan egingo nuke lan gustura. ■■■



ADIMEN ARTIFIZIALA ARRISKU BAINO AUKERA GEHIAGO

Adimen artifizialak etorkizuneko izateari utzi dio, eta edonoren eskura jarri da. ChatGPT testu sortzaile autonomoa izan da teknologia horren eztanda eragin duena, eta haren atzetik, arrapaladan etorri dira testuak, irudiak eta audioak sortzeko gaitasun handiko dozenaka sistema. Jakina da adimen artifizialak eraldaketa handiak ekarriko dituela; horren aurrean nola jokatu, hor dago eztabaida. Batzuek, gizateriaren bukaera hurbil egon daitekeela ohartarazi dute; beste batzuek, aldiz, ikertzen jarraitu behar dela uste dute, epe motzera eta epe ertainera ekarriko dituen onurak kalteak baino handiagoak izango direla iritzita. Epe luzera zer gertatuko den, berriz, ezin da iragarri.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Utzitakoa, Arnaitz Rubio Aprea eta Unax Larrañaga**.





Adimen artifizialak milioika lanposturen galera ekarriko duela, pandemiek eta gerra nuklearrek baino ondorio larriagoak eragin ditzakeela edo gizateria bera desagertzea ekar dezakeela. Hedabideetan gisa horretako titularrak irakurrita, ez da harritzekoa teknologia horren inguruan ezer gutxi dakiten herritarrek beldurra sentitzea. Are gehiago, adimen artifizialaren sektoreko adituek eta enpresaburuek egindako baieztapenak badira horiek. Eta oraindik eta areago, duela gutxira arte adimen artifizialaz ezer entzun ez, eta azken hila-beteotan bazter guztietan horren inguruan hizketan ari badira, dagoeneko errealitate bat dela esanez. Ordea, adimen artifiziala apokalipsiaren pareko jarri duten horiek beraiek dira teknologia hori garatzeko dirutzak inbertitzen ari direnak; arriskuez gain, bestelako aukerak ere badituen seinale.



"Nik jende apokaliptikoari ez nioke batere kasurik egingo", adierazi du Gorka Azkune (Azpeitia, 1982) informatikari eta EHUKo IXA taldeko ikertzaileak. "Adimen artifizialak potentzial handia duela ukaezina da, eta noraino irits daitekeen iragartzea, ezinezkoa. Adimen artifizialak gizateria mendeen hartuko duela esatea titular mamitsua da telebistan ateratzeko, baina uneotan tamaina horretako baieztapenak egitea gehiegikeria hutsa da".

Adimen artifiziala gizateria mendeen hartzeko bidean den teknologia gisa definituz gero, robotek kontrolatutako planeta bat etorriko zaio burura bati baino gehiagori, filmetan ikusitako irudiak, eguneroko bizimodutik urrun dauden kontuak. Baina, izatez, adimen artifiziala hori baino askoz benetakoagoa da, eta herritarrek urteak daramatzate teknologia hori erabiltzen, ziur asko horren jakitun izan gabe. Esate baterako, eskuko telefonoek adimen artifizialari esker ezagutzen dute jabearen aurpegia; Netflixek adimen artifiziala erabiltzen du bezero bakoitzari zein telesail eta film gomendatu erabakitzeko; GPSek eta Google Mapsek adimen artifizialari esker jakiten dute erabiltzaile bati proposatutako ibilbidearen zati batean auto pilaketak daudela eta helmugara iristeko ohi baino denbora gehiago beharko duela; kirola egiteko oinetakoen beharrea dagoenari sarean nabigatzerakoan etenik gabe kirolerako oinetakoen eskaintzak azaltzea ez da kasualitatearen fruitua, adimen artifizialarena baizik; ohiko supermerkatuaren aplikazioan sartzerako erabiltzaile bakoitzaren erosketaren zerrenda prestatzen duen hori adimen artifiziala izaten da; eta horrela, zerrenda nahi adina luzatzea legoke.

Adimen artifizialak, era horretako aplikazio eta erabilpenen bidez, urteak daramatza herritarren bizimodua errazten, baina azken hilabeteotako eztanda ez da horien bidetik etorri, horiena baino adimen garatuagoa duten beste zenbait aplikazioen eskutik baizik. Dugarik gabe, OpenAI enpresak garatutako ChatGPT testu sortzaile autonomoa da denen artean izarra, eta haren ostean etorri dira beste hainbat, irudiak, audioa eta musika zein testuak abilezia handiz sortzeko gai direnak; besteren artean, Google Bard, Grammarly, Synthesia, Dall-e eta MusicGen.

Adimen artifizial sortzailearen booma

Herritarren eskura dauden eredu horiek adimen artifizialaren esparruan uneotan dauden eredurik onenak direla ziurtatu du informatikariak. "Agian horiek sortu dituzten enpresek izango dituzte eredu hobeak esku artean edo ikerkuntza fasean, baina guk behintzat ez ditugu; eredu horiek erreferentziak dira guretzat". Hala ere, "arazo handi bat" dutela nabarmendu du: "Denak sistema itxiak dira, eta ondorioz, ez dakigu ezer horiei buruz; ez dakigu nola entrenatu dituzten, zer informazioarekin, zer arkitektura dituzten, neurona sare horiek nolakoak diren...". Tamalgarritzat jo du hori, zientziak irekia izan behar duela defendatzen baitu azpeitiarrak, "baina enpresa pribatu horiek beste bide bat hartu dute, horrela daude gauzak eta ez dago besterik".

Azkenaldian gehien garatu eta herritarren eskura jarri dutena adimen artifizial sortzailea izan da, eta hori ez zutela espero adierazi du Azkunek. "Paradoxa bat gertatu da. Tradizionalki

pentsatu izan da adimen artifizialak eta antzeko sistemek, funtsean makinek, askoz errazago egingo zituztela guk intelektualki maila baxukotzat jotzen ditugun lanak. Baina gertatu dena justu kontrakoa izan da; guretzat intelektualki maila altukoak diren gauzak egiteko gai direla makinak. Adibidez, marrazki bat egitea, poema bat idaztea, melodia bat sortzea... Esku artean ditugun adimen artifizialeko sistemek lan horiek oso ondo egiten dituzte, eta, oro har, zientzialarien komunitateak ez zuen horrelakorik espero".

Baina Azkuneren irudiko, garrantzitsua da hori guztia testuinguruan jartzea; izan ere, azpeitiarraren hitzetan, "adimen artifizial sortzailea izateak ez du esan nahi sormena daukanik". Eta eztabaida sakonago bat atera du mahai gainera: zer den sormena. "Guk sormena al daukagu? Baietz uste dugu; baina zer da sormena? Nik dakidala, oraingoz inork ez du ondo definitu. Gertatzen dena da, sistema horiek eskura duten datu sorta mardularen ondorioz eta beraien arkitekturak diren bezalakoak direlako, gaitasun handia daukatela modalitate desberdinetako informazioa sortzeko –testuak, audioak edo musika, irudiak–, eta, gainera, oso modu txukunean egiten dituztela lan horiek". Horren inguruan eztabaida dagoela aipatu du Azkunek. "Sortzen dituzten horiek zenbateraino diren berriak, edo entrenatzeko erabilitako datu pila horretatik ateratakoarekin sortutako segida bat diren. Baina gizakiak zerbait sortzen duenean ere sor liteke zalantza hori. Musika talde bat entzun, eta zenbat aldiz esaten da beste talde baten eragina daukala? Zer esan nahi du horrek, kopiatzen ari direla? Ez, baina izan lezake bestearen estiloa edo ukitu bat".

Beldurra pertsonai, ez teknologiari

Adimen artifiziala azkar eta asko garatu da azken urteotan, baina hastapenetan besterik ez dagoela esaten dute adi-tuek. "Adimen artifizialaren asmoa da gizakion adimenaren mailakoa den adimen bat lortzea, edo harago joatea, baina makinak erabilita", zehaztu du Azkunek. Haren ustetan, "adimen artifizialak egunen batean gizakiaren adimena gaingitu egingo du", baina hori bere ustea bakarrik dela azpimarratu du. Hori noiz izango den iragartzea, ordea, zaila iruditzen zaio. "Nik urruti ikusten dut makinek gizakia gaingitzea ezaugarri mailan. Oraindik ere gauza asko falta zaizkigu gizaki baten adimenaren pareko zeozertara iritsi ahal izateko, baina ez dakidana da hori urruti dagoen denboran. Gauzak hain azkar doaz, hainbeste diru dago arlo honetan eta hainbeste jende lanean, ez nintzateke ausartuko esatera hori bost edo hamar urte barru izango den, ez baitaukat ideiarik".



Adimen artifizialari beldurrik izan behar al zaion galdetuta, ezetz esan du Azkunek. "Adimen artifiziala, beste gauza asko bezala, erreminta bat da, eta beldurra pertsoneri eduki behar diegu, ez adimen artifizialari. Egongo dira adimen artifiziala ondo erabiltzen dutenak eta gaizki erabiltzen dutenak, eta horregatik, arautu egin beharko dira zenbait gauza, baina nik jende apokaliptikoari ez nioke batere kasurik egingo". Adimen artifizialak hori baino "arrisku ukigarriagoak, gertukoagoak eta ezagunagoak" badituela ohartarazi du. "Jende apokaliptiko horri kasu egiten ari garen bitartean, ari gara benetako arazoak diren horiek albo batera uzten, askoz hobe genukeenean horiek konpontzen saiatzea". Arrisku horiek zeintzuk diren ere adierazi du. "Adimen artifiziala erabil daiteke guk gizarte bezala dauzkagun hainbat alborapen anplifikatzeko; adibidez, sexismoa eta arrazakeria. Gaur egun esku artean ditugun adimen artifizial sistemak guk sortutako testuekin entrenatzen direnez, dagoeneko baditugun joera negatiboak bere egiten ditu, eta horrez gainera, areagotu edo anplikatu ere egin ditzakete". Adibide bat ere eman du: "Demagun informatikari bat behar duzula eta adimen artifizial sistema bat erabiltzen duzula jendea kontratatzerakoan curriculumak jaso eta lehen galbahea pasatzeko. Adimen artifizialak guk idatzitako testu asko irakurri dituenaz, informatikaria gizonarekin erlazionatzen du eta ez emakumearekin; horregatik, aukera handiak leudeke emakume askoren curriculumak alboratzeko. Hori adimen artifizialari erabilera txarra ematea litzateke, jakitun garela-ko arazo hori existitzen dela. Jendea ari da ikertzen hori konpontzeko, baina badaugu badaudela enpresak sistema horiek erabiltzen ari direnak jendea kontratatzeko".

Beste arriskueta-ko bat sistema horiek esaten dutena itsu-itsuan sinestea dela ohartarazi du azpeitiarrak. "OpenAI enpresako CEO Sam Altmanek behin esan zuen ChatGPT erabil daitekeela medikuaren kontsultara joatea ordezkatzeko, eta hori izugarritzko astakeria da. Baina ez dago esaterik hori arazo berria denik: norik ez dio galdetu Googleri belaunean duen mina zer izan ote daitekeen? ChatGPTrekin are errazagoa da hori, berarekin hitz egiteko aukera ematen dizulako". Azkuneraren hitzetan, jendeak ulertu behar du horiek erreminta batzuk direla, eta esaten dutena oso urruti egon daitekeela errealitate-rik edo oso gertu, gauza batzuetan asmatzen dutela, baina beste gauza batzuetan ez. "Azken baten, guk geuk oso kritikoak izan behar dugu, ezin dugu oso-osorik irentsi esan diguten dena, hanka sartze handi bat egiten ariko baikinateke, eta gauza bera Googleri eta sare sozialei dagokienez ere. Bada jendea sare soziale- tan ikusten duen guztia zuzenean egiazkotzat jotzen duena, ezer zalantzan jarri gabe. Gogoan dut irailaren 11ko atentatu- en bueltan ere gertatu zirela horrelakoak. Bideo bat zabaldu zuten esanez talibanak atentatuak ospatzen ari zirela, eta bitartean, bideoa bost urte lehenago grabatutakoa zen eta palestinar batzuk ageri ziren festa batean. Orain fakenews gisa ezagutzen diren gezurretako istorioak beti egon izan dira, eta aurrerantzean ere egongo dira". Adimen artifiziala erreminta oso lagungarria izan daitekeela esan du ikertzaileak, baina ez edozer gauzatarako; "jakin egin behar da zertarako izan daitekeen ona eta zertarako ez".

"Adimen artifizialari ez diegu beldurrik izan behar, pertsoneri izan behar diegu beldurra"

"Mezu apokaliptikoak ematen dituzten horiei, nik ez nieke batere kasurik egingo"



Andoni Sudupe (Azpeitia, 2002) Adimen Artifizialeko Gradua egiten ari da EHUren Donostiako Informatika Fakultatean. Lehen promozioiko ikaslea da, eta ondo bidean, hasi berri duen ikasturtea izango du azkena.

Nolatan erabaki zenuen Adimen Artifiziala ikastea?

Informatika Ingeniaritza ikastea pentsatzen ari nintzen, ordenagailuak eta matematikak gustatzen zaizkidalako, baina Ingeniaritza Eskolako ate irekietako saioan adimen artifizialaren inguruko hitzaldi bat entzuteko aukera izan nuen, eta konbentzitu egin ninduten. Adimen Artifizialeko ikasketak Informatika ikasketen antzekoak dira, baina hardwareari lotutako gaiak gutxiago lantzen dira, eta matematikak gehiago. Informatikan esparru asko ukitzen dituzte, eta horien artean bat da adimen artifiziala; Adimen Artifizialeko ikasketak, aldiz, espezializatuagoak dira.

Zer ikasi duzu hiru urteotan?

Lehendabiziko bi ikasturteetan, gehienbat informatikari lotutako gauzak landu genituen, eta ia hasi ginen adimen artifizialean sakontzen, gaur egun dauden ereduak, horien arkitekturak, arkitektura bakoitzaren puntu interesgarrienak eta abar

"Ia ezinezkoa da aurreikustea ikasturte bakoitzean zer landuko dugun"

ANDONI SUDUPE

ADIMEN ARTIFIZIALAREN GRADUKO IKASLEA

ikusten nahiz horiek nola programatzen diren eta nola erabiltzen diren ikasten. Adimen artifizialaren barruan adar asko daude –hizkuntza, irudia, osasuna...–, eta eredu asko ere bai; adibidez, azkenaldian horren ezagun egin den Chat GPT eredu bat da.

Adimen Artifiziala ikasten hasi zinenetik, izugarri garatu eta aldatu da esparru hori.

Bai, esan liteke ordutik hona garatu dela ia dena; duela lau urte bazegoen zerbait, baina booma harrezkero gertatu da. Ondorioz, gure ikasketak ere erabat aldakorrek dira. Irakasleek ikasturtearen hasieran esaten digute irakasgai bakoitzean zer lantzen hasiko garen, baina ez ikasturtean zehar zer landuko dugun; ia ezinezkoa da hori aurreikustea.

Bizitza guztian ikasten jarraitzeko prest al zaude?

Adimen artifizialaren arloan lan egin nahi badut, derrigorra izango dut. Esparru honetan, hilabete batez deskonektatuta egotea nahikoa da bueltan zeure burua galdu-galdu eginda ikusteko.

Zein arlotan lan egitea gustatuko litzaizuke?

Praktikak Elgoibarko [Gipuzkoa] Ideco enpresan egin ditut, gradu amaierako lana han egiteko aukera eskaini didate eta ez litzaidake axolako lanean bertan segitzea ere. Robotak erabiliz, enpresei irtenbide aurreratuak eskaintzea da han egiten dutena, eta gustuko dut esparru hori.

Ez dirudi lan aukerarik faltako zaizuenik...

Ez dirudi, ez. Adimen artifizialak ekar dezakeen eraldaketaz jabetu ahala, era guztietako enpresak ari dira esparru horretan urratsak egiten.

Bada motiborik adimen artifizialari beldurrik izateko?

Adimen artifizialari ez, baina agian bai batzuek eman diezaioketen erabilerari.

"ERA GUZTIETAKO ENPRESAK ARI DIRA ESPARRU HONETAN URRATSAK EGITEN"



Abokatua eta adimen artifizialean aditua da Elen Irazabal (Zarautz, 1990). Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, eta doktoregaia da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Abokatuei programatzen irakasten die eta *La inteligencia artificial explicada para abogados* liburuaren egilea da.

Noiz hasi zinen adimen artifizialean interesatzen?

Zuzenbidea ikasi ostean, Nazioarteko Harremanetan graduondokoa egin nuen Madrilén, eta gero, Indiara joan nintzen bidaian. Han atentzioa eman zidan herritarren oinarritzko beharrak estali gabe egon arren, denek zutela smartphone bat esku artean. Zarautzera itzuli nintzen eta bizpahiru urtean arlo juridikoan aritu nintzen lanean, nahikoa denbora jabetzeko zein gaizki funtzionatzen duen esparru horrek. Garai hartan dagoeneko Big Dataz hitz egiten zen eta adimen artifizialaz hitz egiten ere hasita zeuden adituak. Petrolio berria datuak izango direla eta horrelakoak esaten dituzte, eta neure erara ikertzen eta ikasten hasi nintzen. Madrilera bueltan, esparru horretan sakontzen jarraitu nuen, zibersegurtasunaren

"EPE LUZERA BEGIRA
GERTA DAITEKEENA EZ
DAGO BATERE ARGİ, EZİN
DA AURREİKUSİ"

"Adimen artifizialaren inguruan, eztabaida lasaia goa behar dugu"

ELEN IRAZABAL

ABOKATUA ETA ADIMEN ARTIFIZIALEAN
ADITUA

arloan lanean hasi nintzen, eta abokatuei ikastaroren batzuk emateko deitzen hasi zitzaizkidan. Jauzia, ordea, pandemia garaian egin nuen: autonomo egin nintzen, eta *Abokatuentzako konputazio zientziak eta programazioaren logika* ikastaroa ematen hasi nintzen. Adimen artifizialaren inguruko kontzeptuak abokatuei beraiek ulertzeko moduan azaltzen saiatzen naiz.

Azken hilabeteetan adimen artifizialaren eztanda gertatu da, eta ekar ditzakeen onurez ez ezik, arriskuez ere ohartarazi dute batek baino gehiagok, nahiko mezu katastrofisten bidez, gainera. Beldurtzeko motiborik badela uste duzu?

Gaur egun eta epe ertainera, adimen artifizialak ekarriko dituen onurak kalteak baino askoz handiagoak izango dira. Adibidez, osasungintzan, minbiziaren kontrako borrokan eta, aurrerapen handiak egiten ari dira adimen artifizialari esker. Baina horrek ez du kentzen arriskuak ere badiituenik. Epe luzera begira, esaterako, ez dago batere argi zer gerta daitekeen, ez baitakigu noraino iristeko gai izango garen. Gizakien adimena gaindituko duen adimen artifizial bat sortu nahian gabiltza, baina ez dakigu lortuko dugun ala ez, eta lortzen badugu zertara eraman gaitzakeen horrek eta zein izan daitezkeen ondorioak.

Adimen artifiziala arautzeko beharra nabarmendu dute batek baino gehiagok. Gaur egun ba al dago adimen artifizialari

eragiten dion legedirik?

Adimen artifiziala arautuko duen legedia lantzen ari dira Europako Batasunean, baina egun indarrean dauden lege batzuek dagoeneko eragiten

diote adimen artifizialari; esate baterako, datu pertsonalen babeserako legeak eta zibersegurtasunaren ingurukoak.

Europako Batasunean adimen artifizialaren inguruko araudia lantzen ari direla esan duzu. Nolakoa izan behar luke araudi horrek?

Adimen artifizialaren inguruan legedi espezifiko bat lantzen ari dira, bai, baina horrek ez du esan nahi araudi hori ona izango denik, eta adimen artifiziala behar bezala eta egoki arautuko duenik. Aurrena, indarrean dauden legeek adimen artifizialari nola eragiten dioten zehatz-mehatz jakiteko azterketa bat egin beharko litzatekeela uste dut, ikusteko zer dagoen eta zer behar den. Adimen artifiziala arautzeko lege bat egingo dute, baina adimen artifizialaren esparruan gabiltzanon jarduna lege horrez gain beste batzuek ere arautuko dute, esaterako, nire kasuan, autonomoen inguruko legediak. Batak besteari nola eragingo dion aztertu gabe jarduteak dena lausotuko du eta ez zait iruditzen prestatzen ari diren legedi hori behar bezain argia eta eraginkorra izango denik.

Arautu al daiteke horren dinamikoa den zerbait?

Adimen artifizialaren inguruko proposamena pasa den urteko apirilean atera zen eta oraindik ez dago indarrean. Hau da, urtebete baino gehiago pasatu da, eta oraindik ez dago garbi noiz jarriko den indarrean. Prozesu legegileak motelak dira, burokratikoak, baina adimen artifizialak ez du itxarongo.

Adimen artifiziala noraino irits daitekeela uste duzu? Ikusten al diozu mugarik?

Adimen artifizialaren inguruan iragarpenak egitea oso zaila da, ezinezkoa. Uste dut inor gutxi espero zuela adimen artifiziala horren indartsu sartuko zen esparruetako bat arte sorkuntzarena izatea, eta begira zer ari den gertatzen. Gaur egun baditu mugak, muga filosofikoak, muga fisikoak eta abar. Gakoa izango da muga horiek gainditzeko gai izango garen ala ez, eta gainditzea lortzen badugu, noiz izango den hori.

"ADIMEN ARTIFIZIALAREN
INGURUKO LEGE BAT
EGITEAK EZ DU ESAN NAHI
HORI ONA IZANGO DENIK"

Zure ustez, gaur egungo ezagutzaren mugak modu autonomoan gainditzeko gai izango al da?

Hori ikusi egin beharko da, zaila da horrelako zerbait aurreikustea. Printzipioz, adimen artifiziala gure adimena baino azkarragoa bada, guk espero ez ditugun edo espero ezin ditugun gauzak ager daitezke.

ChatGPT bezalako tresnak gizakiek sortutako ezagutzaz elikatzen badira, nola eman dezake urrats bat harago?

Adimen artifizialaren ikaskuntza prozesua eta gurea ez dira berdinak. Adimen artifizialak datu bolumen handietatik ikasteko gaitasuna du, eta gizakioi ez bezala, adimen artifizialari ez zaio ezer ahaztuko. Hori da iragarri ezin den bere osagaietako bat eta arrisku gehien sor ditzakeena, ez baikara gai horrek izan ditzakeen ondorioak aurreikusteko.

Argi dago adimen artifiziala aukera asko eskaintzen dituen tresna dela. Hortaz, alderdi batzuetatik zergatik ari dira adimen artifizialaren inguruko ikuspegi ezkorra indartu nahian?

Gaur egun beldur handiegia dago adimen artifizialaren inguruan, eta eztabaida lasaiegia behar dugu. Onurak arriskuak baino handiagoak izan arren, egia da arriskuak ere hor daudela, eta normala da jendea kezkatuta egotea; adibidez, teknologia horrek bere lanean izango duen eraginarekin. Adimen artifizialak gaur egun egiten ditugun lanen balioa aldatu egingo du. Adibidez, sektore juridikoan, nik ezagutzen dudana horretan, gaur egun oso lan automatikoak egiten dituzten horiek dira beldur gehien izan beharko luketenak. Izan ere, abokatu baten balioa ez datza informazioa ekoiztean, hori adimen artifizialak egin dezake.

Hainbat lanbide eraldatuko ditu, baina enplegu berriak ere sortuko ditu.

Bai, noski. Internet iritsi zenean ere antzeko zerbait gertatu zen. Askok ziren teknologia horrek izan zitzakeen mehatxuak edo arriskuak salatu zituztenak. ■




Sudokua

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak, TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, begiratu irudi bakoitzari zein hizki dagokion eta biribilean idatzi. Esatera zahar bat agertuko zaizu.



AIZU, BA
NIRETZAT TRIKUA

S


DA



HARA!
NIRETZAT, BERRIZ,

K

DA



Hitz ezkutak

Zer diote gure neska-mutilek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki geziek agintzen dizuten moduan. Abiapuntua, bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadratxoan dugu. Jakin ezazu trikuari deitzeko moduan ari direla biak.






BAI POLITA
HITZ HORU!

Nahas-Mahas

Ena, baina zenbat modu ditugu TRIKUA esateko? Alaboko erraialdean bi modu ditugu, eta hemen hirugarren bat. Eraman hizki bakoitza bere geziak aintzen dituzun tokira eta hitz hori zein den asmatuko duzu.



Engain Nagarriak

Ba al dakizu zenbat triku hiltzen diren errepidea pasa nahian, kotxeak harrapatuta? Guk ere ez dakigu zehatz-zehatz zenbat diren, baina asko eta asko direla ziur da. Gaixoak. Honako zortzi

irudi-zatitxoen
artetik erdiak
engainogarriak
dira, hau da, ez
dagoz bat irudi
nagusiarekin.
Bereiz itzazu.



Bilatu

Gure trikuari
barraskiloak,
bareak,
intsektuak,
harrak, txoritxoak
arrantzak, zizak
fruitu garriak eta
meloak gustatzen
zaizkie. Bilatu eta
margotu. Bide
batez, elementu
bat falta da. Zein?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

"Etxeko teilatuak ni ez nau azpian harrapatuko"

ROSARIO IBAIETA MERKATARIA ETA ESKULANGILEA

Oso gazte hasi zen lanean, eta 21 urterekin "etxeko negozioa" sortu zuen: Nerea eskulanak. Beste hiru ahizpekin batera bost hamarkadatik gora jardun du lanean, eta dendak ateak itxi berri ditu. Lanetik kanpoko orduetan, dantza egitea eta bidaiatzea atsegin izan ditu Ibaietak.

Testua: **Nerea Uranga**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**.

Jakin-min handiko emakumea eta ekintzailea da Rosarito Ibaieta (Azpeitia, 1945). Erretiroa hartu eta berak Buztintzuriko errebalean sortutako Nerea eskulanak denda itxi berri du, 56 urteren ondoren. Gazte hasi zen lanean; 11-12 urterekin eskola utzi, eta 15 urterekin Debako (Gipuzkoa) hotel batera joan zen lanera. Bost urtez jardun zuen hotelean, "astelehen arratsaldeak bakarrik izaten genituen jai", gogoratu du.

Hoteleko lana utzi, eta 21 urterekin, "etxeko negozioa" sortzea erabaki zuen. "Bateren batek esan zidan puntuzko jertseak egiten hasi beharko nukeela, negozio horrek funtzionatuko zuela eta. Hala, Donostiara joan nintzen akademiara, sei-zazpi hilabete egin nituen ikasten". Negozio berria zabaltzeko

lokal bila ere hasi zen Ibaieta Azpeitian. "Errebalean, Imanol Azkueren aitak-eta tailerra izan zuteneko lokala ikusi genuen. Lokala Zubeldiarena zen, eta harekin tratua egin nuen errentan hartzeko. Lokalean obra egin eta han hasi ginen. Egun etxe hura eraitsita dago; garai hartan *bonberuen etxea* bezala ezagutzen zen, eta etxaurrean ere *Casa bombero* zuen idatzita". Eraikinaren beheko solairuan denda jarri zuen Ibaietak, eta goiko aldean tailerra. Makina industrial bat erosi, eta jertseak neurritan egiten eta saltzen hasi zen.

Behin jertseak egiteko tailerra martxan ipinitakoan, garai hartan uniformeak erabiltzen zuten ikastetxeetara jo zuen Ibaietak. "Gu geu Miserikordian [Milagrosa] ikasitakoak ginen, eta Milagrosa, Esklabak eta Jesuitinak ikastetxeetara joan ginen eskola uniformeekin jertseak egiteko zer aukera genuen galdezka.

ROSARIO





Garai hartan beste batek egiten zuen lan hori, baina hura uztekotan zen, eta gu hasi ginen lan horretan. Mojek erosten zituzten hariak, eta guk jertseak egin, lisatu eta botoiak josi behar izaten genizkien hainbesteko diru baten truke".

Ondoren, umeen arropak diseinatzen eta josten, eta ekoizitakoa beste denda batzuetara saltzen hasi zen. Aurrena, Donostian zegoen "haurrentzako denda nahiko inportante batera" jo zuen Ibaietak modeloak aurkeztera, eta handik aurrera, pixkanaka bezeroak gehitzen joan ziren Nerea dendakoarentzat; Oñati (Gipuzkoa), Altsasu (Nafarroa), Irun (Gipuzkoa), Hondarribia (Gipuzkoa) eta Tolosa (Gipuzkoa) artean hemezortzi-hemeretzi bezero izatera iritsi zen, "toki bakoitzean denda bat", nabarmendu du. Ordurako, Arantxa, Maria Angeles eta Lurdes ahizpak negozioan lankide zituen Ibaietak. "Guk egiten genituen ume arrokek bazuten berezitasun bat: beti eskulanarekin bukatzen genituen, kakorrazarekin bukaera eta detaileak eginda". Lan asko egindako garaia, baina polita izan zela du gogoan.

Garai berrietara moldatuz

Denda martxan izan duten bost hamarkadetan, garaian garaia moldatu behar izan du Ibaietak

beren lana eta "etxeko enpresa" aurrera ateratzeko. 20-25 urtean jardun zuten ume arropak diseinatzen, egiten eta saltzen, baina boladak aldatu ahala, negozioa "eraberritzea" beste erremediorik ez zuten izan Nerearenekoek. "Puntuaren ordean, beste ehun batzuekin egindako arropak hasi ziren zabaltzen: pana, bakeroa... Jantzera aldatu zen, eta helduentzako arropak egiten hasi ginen: konjuntak beren gonekin, abrigoak... Puntuzko jantzien bolada ere pasatu zen, ordean".

Negozioari heltzeko, geldirik ezin egon, eta beste eraberritze bat egin zuten Ibaietak hasitako negozioan. "Dendan haria lautik batera jaitsi genuen eta etxeko arropa saltzeari ekin genion, pijamak eta abar. Etxe onetako arropa ekarri genuen, kalitatea eskainiz bezeroari. Izan ere, bestelako aukera bazegoen merkatuan, eta guk haien prezioekin ezin genuen lehiatu. Eskulanen ikastaroak ematen ere hasi ginen sasoi hartan", azaldu du Ibaietak. 30-35 urte egin dituzte era horretan lanean. Ikastaroetan sortutako lanekin erakusketak ere jarri izan dituzte herriko hainbat txokotan, hala nola Sindikatu Zaharrean eta Betharrametako erakusketaren aretoan.

Helduei bakarrik ez, haurrei eskulanak irakasten ere aritu izan da Ibaietak. "Iraurgi ikastetxean



jardun nuen ikasleei puntua egiten irakasten hiru bat urtez, eta gaur egun, ikasle haietako askok kalean agurtu egiten naute. Aberasgarria izan zen, bai haientzat eta bai niretzat".

Familiaren habia

Negoziari ekin zionetik egundaino, ordu asko eta asko hartu dizkio lanak Ibaietari, baina ez du inolako damurik egindako bidearekin. "Gure denda topalekua izan da, familiako lau belaunaldiren elkargunea, eta ez etxekoentzako bakarrik, baita ikastaroetan ibili diren herritar askorentzako eta bezeroentzako ere. Elkarri laguntzeko eta elkar zaintzeko topalekua izan da Nerea eskulanak. Urtebetetze jaiak-eta askotan ospatu izan ditugu bertan". Orain, denda itxita, espazio horren hutsunea antzemango dutela dio.

Ez lanean eta ez kalean, ez da geldirik egotea Ibaieta. "Etxeko teilatuak ni ez nau aspian harrapatuko; hori bai, etxekoa egin ondoren atara izan naiz beti". Herriko merkatari elkarteetan ere ibili izan da herriko denda txikien alde egiteko, UEMEn (Urola Erdiko Merkatarien Elkartea) aurrena, eta gero Bertan Azpeitiko merkatarien elkarteetan. UEME bere garaian Erdi Aroko Azoka antolatzen hasi zen Azpeitian, eta arropak prestatu eta han parte hartzen hasi ziren Nerea eskulanak dendakoak. Azokari eskerrak, Nafarroako eta Gipuzkoako herri asko eta Bizkaiko beste batzuk

ezagutu zituen Ibaietak. "Erdi Aroko Azokak Nafarroako kooperatiba batek antolatzen zituen, eta guk geuk egindako lanekin parte hartzea nahi al genuen proposatu ziguten, eta hala hasi ginen. Hamaika tokitara joan ginen asteburuetan azoketan lan egitera, eta ederki asko pasatu ere bai askotan. Pasadizo ederrak ere baditugu!", gogoratu du.

Dantza eta bidaiatzea

Herriak bizia izateko eta bizirik mantentzeko, bakoitzak bere hondar alea jarri beharra duela uste du Ibaietak. "Erakundeek eta udalak bakarrik ez, herritarrek ere beren aldetik horren alde egin behar dute, beren alea jarritz. Nahi badugu herriari eustea, zerbitzuak izatea eta herrian bizitzea beste era batera jokatu beharko dugu, baina aldaketa handiak etorri zaizkigu...", dio. Herrian bizitza izatea atsegin duelako, hainbat ekintzatan ere parte hartzen du, Kantujiran edota Luix Beltzaren Ikasberriko gurasoen dantza taldean.

Dantza egitea "ikaragarri" gustukoa du. "Gaur egun, gazte batzuk ere hasi dira gurasoen dantza taldean, baina gurasoak baino aitona-amonak gehiago gara taldean. Lagunarte ederra daukagu eta ondo pasatzen dugu. Dantza taldeari esker hainbat toki ezagutzeko aukera ere izan dugu". Dantza taldearekin Argentinara egindako bidaiak ondo gogoan du: "Bidaia mundiala izan zen, zoragarria".



Argentinan bakarrik ez, munduko lurralde ugaritan izandakoa da Ibaieta. Bidaiatzea atsegin du, baita "arte, historia eta horrelako gaiez jakitea ere". "Dendari esker, hainbat azoketan ezagutu nituen lagun batzuk erretiroa hartu eta helduen unibertsitatean hasi ziren. Haiek ikasgaiaren arabera batera eta bestera bidaiak egiten zituzten,

Rosario Ibaieta

- **Adina:** 78 urte.
- **Ikasketak:** 11-12 urtera arte ibili nintzen eskolan, gero Gau Eskoletara ere joan nintzen denbora batez zerbait ikasteko.
- **Dendaria izan ez banintz...** Ikasteko aukera izan banu, hizkuntzekin lotutako zerbait ikasiko nukeen, ikaragarri gustatzen zaizkit hizkuntzak, eta aurren-aurrena frantsesa ikasiko nukeen.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Dantza ikastera joateaz gainera, 35 urtean etxepeko lau lagun egunero oinez Azkoitiko buelta egitera joan izan gara. Oinez ibiltzea asko gustatzen zait, eta mendia ere gustuko dut.

eta bidaia horietara bateren bat eraman zezaketela eta, behin komentatu nien ni gustura joango nintzatekeela. Hala, behin Egiptora joan nintzen haiekin, eta bidaian egunero bi orduz Egiptologia ikasten genuen. Zoragarria izan zen. Ondoren, haiekin Greziara eta Erromara ere joan nintzen. Bidaia zoragarriak egin nituen". Jakin-minak bultzatuta bidaiatzen du, kultura eta toki desberdinak ezagutzea atsegin duelako. Parisen, Herbehereetan, Berlinen eta beste hainbat lekutan izan da, eta orain, Iranera joango da. "Nire senar zenari ez zitzaion gustatzen bidaiatzea, eta hala esaten zidan: 'Niri ez zait gustatzen bidaiatzea, eta zuk egin dezakezu nire partea eta zurea, bidaia bat egin beharrean bi. Joan zaitez'. Haren esana ondo gogoan hartu nuen".

Ikasteko aukera izango balu, hizkuntzak gustura ikasiko lituzkeela dio, eta "aurren-aurrena frantsesa" ikasiko luke. "Euskal Herrian bizi gara, eta euskaraz gainera, beste bi hizkuntza hitz egiten dira, eta frantsesa ikasiko nuke gustura", azaldu du.

Dendako ateak itxita, ez da damu egindako ibilbidearekin, garai onak eta txarrak ahaztu gabe, hala dio: "Era denetako boladak izan ditugu, hasierak-eta gogorak izan ziren. Hala ere, lanean gustura jardun dugu, eta ez dugu utzi. Guk bizi izan dugun familia giroa, lanerako erraztasuna eta laguntasuna oso inportanteak izan dira". ■

Koh Tao 
 OSAGARRIAK +
 PIERCING ESTUDIOA
 Jose de Artime, 14- 20730 AZPEITIA T. 628 778 758

LAU 
 NEUMATIKOAK
 PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
 943 053056 Loiola kalea 20, 20730 Azpeitia

 **JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

bertako
 igogailuak | ascensores
 Benetako orotariko zerbitzuak
 100€-tik /hileko

Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena
 2.500 bezerok gugan dute konfiantza
 943 903 450 bertako.eus



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarrria@gmail.com helbide elektronikora urriaren 17a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Abuztuko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 12. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Begoña Gurrutxaga bazkidea izan da irabazlea.

 **URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
 Damazo Azkue 6
 AZPEITIA

Tximinoentzako bazka



IMANOL AMIANO

Hizkuntzak, ohiturek, usadioek osatzen dute, neurri handi batean, norberaren identitatea. Euskaldunok tinko eutsi diogu euskaldun egiten gaituen euskaraz aritzeko ohiturari. Garai batean gazteak soldadutzara joaten zirenean, elkarren anparoan batzen ziren, eta hortik dator gero gazte-hizkeran-edo hain ezaguna (izan) zen gaztelaniazko "la vasca" esamoldea kuadrilla edo lagun-arte adierazteko. Mundu Berria euskal etxez bete genuen. Geureari eusten genion, bai horixe, harrotasunez eta herri-minez, *fifty-fifty*.

Gurera etortzen direnena, ordea, bestelakoa da. Ez dira adaptatzen. Beren arropa, erlijio eta hirugarren munduko ohiturekin jarraitzen dute, temati. Kostatzen zaie, bai, errealitate berrietara egokitzea. Gure artean bizi dira eta gurera moldatu beharko lukete, baina Meknes, Timbuktu, Djurjura edo Aaaiunera itzultzea dute amets. Herrialde guztietan toki onak badira, baina bihotzak dio zoaz Tegucigalpara. Edo Chacora, Guayaquilera. Bahawulpurrera.

Ikasturtea hastearekin, Euskara eta Kulturartekotasuna Azpeitian egitasmoa herriarren artean ezagutzera eman dute Mondragon Unibertsitateko Huhezik eta Uemak, herriko udalaren, ikastetxeen eta hainbat eragileren laguntzarekin. Izenak ez du zalantzarako tarte handirik uzten: euskara abiapuntu, jatorri atzerritarrekoen konplizitatea da xede, haiei eta beren kulturari zor zaien errespetuarekin uztartuta. Ez dugu beren identitatea galtzerik nahi, gorde dezatela etxeko hizkuntza, izan amazigera, guarania, ketxua, aymara, miskittoa edo panyabia, izan gaztelania, frantsesa edo ingelesa. Horien guztien bigarren hizkuntza izan dadila euskara, euren identitatearen parte izateraino.

Baina aurkiak beti izaten du ifrentzua, eta hurrengo egunean iritsi zen, *periodikuen*:

EUSKARA ABIAPUNTU, JATORRI ATZERRITARREKOEN KONPLIZITEA DA XEDE

"Euskadin biztanle etorkinen %72k ez dute uste euskara lanerako behar dutenik", zioen lerroburuak. To kulturartekotasuna. Hainbat izenburu aukeratzea bazuen V. Melok, edo editoreak, edo lerroburu alderdikoi eta bidegabe hori aukeratu zuenak, Begirune Fundazioak egindako inkestan galdetutakoa "EAEn lan egin nahi duten guztiek euskaraz jakin behar dute" baitzen. Hala ere, ezin ezkutatu %83ren iritiz "seme-alabek euskara ikastea garrantzitsua" dela, %72k uste dutela "euskarak ateak irekitzen dituela", eta "aberasgarria dela EAEn bi hizkuntza egotea". Errematea, erdiek uste dute "euskarak EAEn integratzeko balio duela".

Orain, beharbada, argiago izango duzue atzerritar jatorriko biztanleek euskarari buruz duten jarrera, argi dagoena herri honetako me-Meloek duten jarrera baita. *Periodikuen* kulturartekotasuna ez, monokultura, monohizkuntza da sustatzen dena, betiko monologoa, tximinoentzako bazka, "para la vasca". Utikan. ■

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukt.eus o 943-81 38 41

Laguntza, gertutik urrunera

Gobernuz Kanpoko Erakundeetako kideak dira Miren Odriozola, Aitor Zinkunegi eta Iñaki Lizaso azpeitiarrak. Urte luzez aritu dira askotariko proiektuetan kooperazio lanean, eta oraindik horretan jarraitzen dute El Salvadorren eta Ruandan. Azpeitiko Udalak diruz laguntzen ditu herritarren kooperazio proiektuak, eta hiru azpeitiarrek laguntza hori baliatu dute urruneko proiektuak bultzatzeko.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Utzitakoak**.



Mundu hobe eraikitzea ez da egiteko erraza, eta gaur egungo testuingurua ikusita, are da zailagoa. Hala ere, badira era batera edo bestera lagundu asmo duten Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE) eta horiei laguntza ematen dieten bestelako instituzioak. Azpeitiko Udalak urteak daramatza askotariko kooperazio proiektuak diruz laguntzen, horretara bideratuta duen diru lerro baten bitartez. Urteotan, munduko hainbat txokotako proiektuak sustatu dituzte, hala nola Nikaraguan, Saharan, Swazilandian, Mexikon, El Salvadorren eta Ruandan.

Lehen norbanakoek ere eska zitzaketen kooperaziorako diru laguntzak, baina orain ezinbestekoa da horiek GKEen bitartez bideratzea. Iñaki Lizasok Behar Bidasoa elkartearekin egiten du lan Ruandan; Miren Odriozolak Pro-vidarekin El Salvadorren eta Aitor Zinkunegik, leku berean, Fundabrilekin. Besteak beste, etxetxoak egiteko, emakumeen osasunerako nahiz memoria historikoa hedatzeko proiektuak dira azpeitiarrek sustatzen dituztenak.



Bizilekuak

Behar Bidasoa elkarte

Lurraldeei kendutako baliabideak itzultzea. Hori da Behar Bidasoa erakundearen leloa eta helburua. Munduko hainbat txokotan laguntzen du Behar Bidasoak garapen proiektuen bitartez, baina Iñaki Lizasok Ruandako proiektua babesten du Azpeititik. Kabugako biztanleen oinarritzko beharrak hobetzeko egiten du lan. Jasotzen duten dirua etxetxoak egitera bideratzen dute. "Kabugako eta inguruko familiek aukera oso txikia dute gutxieneko bizigarritasun baldintzak dituen etxebizitza bat eskuratzeko. Gehienak buztinezko eta lastozko txaboletan bizi dira, leihorik gabe, eguraldiaren mende eta emakumearentzat inolako babesik gabe". Ur hornidura bermatzen ere saiatzen dira. Egoera aldatu dela dio: "Guztira, 300 etxetxo inguru egin dira GKEtik bideratutako diruarekin. Gainera, hogeitara pertsona ingururi lana ematen zaie eraikuntzan, eta modu horretan, familiek lana eta diru iturria dituzte". Behar Bidasoak azken urteotan gauza asko lortu dituela dio: "Errepideak eta oinezko bideak berritu dira; zubiak eraiki dira, ibaiak igaro ahal izateko; askotariko tailerrak eskaini dira; emakumeek sortu duten nekazal kooperatibaren azokako eraikina altxatu da; abereak erosteko mikrokredituak lortu dira; emakumeen formakuntza bultzatu da; ura bideratu dute herrietik zortzi kilometrora dagoen sorburu batetik, eta egunero 300 haurrentzako gosariak eskaintzen dira". Proiektuari "jarraipen zuzena" egiten diela kontatu du Lizasok: "Oso zorrotzak dira diru laguntzen justifikazioak. Beraz, guzti-guztia argi eta garbi azaldu beharra dago. Gure kasuan, harremana zuzena da, koinata baita Ruandako kooperazio proiektuko arduraduna". Diru laguntzak garrantzitsuak al diren galdetuta, azpeitiarrak dio haien egitekoa dela bertako jendeari kendutakoa itzultzea: "Guk esaten dugu gure helburua dela haiei dagokiena itzultzea. Hau da, lurralde horiei itzultzea gure ongizateagatik kendu zaiena. Beraz, ahal den heinean horretan jarraituko dugu".



Lastozko eta buztinezko aterpeen orde, material egonkorrak erabiliz altxatzen dituzte etxe berriak familientzat. Modu horretan, lana ere eskaintzen zaie.

**"GUZTIRA, 300 ETXE
INGURU EGIN DIRA
KABUGARA
BIDERATUTAKO
LAGUNTZEKIN"**



Pro-vidak egindako askotariko ekintzak: zitologia probak, bularreko minbizia detektatzekoak, formakuntza saioak edota emakumeen azoka.

**"JENDEARI
AHALDUNTZEKO
TRESNAK EMATEA ERE
BADA GURE
HELBURUA"**



Ahalduntzea

Pro-vida eta El Salvador Elkartasuna elkarteak

El Salvadorko Cabañas eskualdeko Tejutepekeneko hamar komunitateetako emakumeei prebentzio bidez euren osasun sexualean eta ugalketa eskubideetan laguntzea eta horiek ahalduntzea. Hori da Miren Odriozola kide den El Salvador Elkartasuna elkartearen eta Pro-vida GKEaren xedea. Pro-vidak El Salvador Elkartasunaren bitartez jasotzen du diru laguntza, eta askotariko egitasmoetara bideratzen dute jasotakoa. "Esaterako, ehunka emakumeri zitologiak eta bularreko azterketak egiten dizkiete eta emakumeen ospitaleratzeak kudeatzen dituzte; izan ere, oso altua da umetokiko edo bularreko minbizia duten emakumeen zenbatekoa. Hango biztanleen gehiengoak ez du baliabiderik horretarako. Era berean, abusu eta esplotazio sexualaren aurkako lanketa prebentiboa egiten da". Odriozolak urteak daramatza Pro-vidarekin elkarlanean, norbanako bezala aurrena, eta GKEaren bitartez gero. Gertutik ezagutu zuen haien egitekoa, El Salvadorko gerra amaitu ostean han egon baitzen lanean bi urtez. Duela hamabost urte inguru hasi zen Odriozola kooperazio lanetan, eta aurrena Fundabrilekin aritu zen arren, Pro-vidaren proiektuak laguntzen daramatza azken hamalau urteak. Hark dio elkartearen lana ez dela "altruismoan eta paternalismoan" oinarritzen, ez dela "eman eta kito". "Jendearen kontzientzietan eragitea eta garapenerako tresnak ematea ere bada gure helburua, bertako emakumeak ahaldundu eta beren kabuz gauzak egin ditzaten. Matxismoaz eta beren kabuz gauzak egiteko gai direla jabetuta, hainbat emakume hasi dira elikagaien kooperatiba txikiak sortzen, artisau lanak egiten... eta horrela bizi kalitatea hobetzen", dio. "Gertuko harremana" dute elkarteko kideekin, eta urtero joaten dira hara bisitan. 2023ko proiektua otsailean amaitu zuten, eta udalak 15.000 euroekin lagundu du egitasmoa.



Kultur Etxea

Fundabril eta Mubike elkarteak

Giza eskubideen eta memoriaren alde lan egitea. Horixe da El Salvadorko Fundabril edo 1 de abril GKEaren helburua, eta hori sustatzen du Aitor Zinkunegik Mubike kooperazio elkartearen bitartez. Hamar urte daramatza Zinkunegik Fundabrilarekin lanean, norbanako bezala aurrena, eta Mubikerekin ondoren. Ordutik geroztik askotariko egitasmoak bultzatu dituzte. "Fundabrilak El Salvadorko gerra zibilari lotutako memoria historikoa lantzen du, 70-80ko hamarkadetan oinarritutakoa. Horretarako, askotariko egitasmoak garatzen ditu, batzuk materialak eta beste batzuk formakuntzara bideratutakoak. Esaterako, zenbait urtetan artxibo grafikoa osatzeko lanean aritu dira, argazkiak biltzen, digitalizatzen, monumentu memorialak eraikitzen, sarraskiak jazo ziren lekuetara bisita gidatuak egiten... Azken lau urteetan, ordea, Memoriaren eta Bakearen Kultur Etxea garatzen aritu dira, eta dagoeneko laugarren fasean gaude. Bertan, askotariko formakuntza saioak egiten dituzte gazteekin, haiei prestakuntza eskaintzeko", azaldu du Zinkunegik. Hark kontatu duenez, memoriaren berreskuratzeko eta gizarteratzeak erakutsi du badagoela belaunaldi arrakala bat, eta gazteekin lan egitearen beharraz jabetu dira. Beraz, horretan dabilta orain. "Gaur egungo gazteei gerra zibilaz eta garai hartako biolentziaz hitz egitean, ikusten da haiek urrun bizi dutela hori; izan ere, biolentzia egon badago gaur egun El Salvadorren, eta kalean ikusten dute ia egunero. Beraz, bi aldeetarako transmisioa egitea da asmoa, bakearen eta elkarbizitzaren aldeko urratsak egiteko". Kultur Etxearen aurreko faseek izandako "harrera ona" eta El Salvadorren egun bizi duten egoera sozopolitikoa ikusita, lanean jarraitzen du Fundabrilak. "Askatasun demokratikoak gero eta gehiago murrizten dira han, eta gazteak beren eskubideez jakitun izatea eta haiek gaitasun kritiko eta proaktiboa izatea beharrezkoa da", azaldu du Zinkunegik. ■■■



Memoriaren eta Bakearen Kultur Etxean askotariko ikastaroak eta formakuntza saioak gauzatzen dituzte. Gauza materialak ere egin dituzte urteotan.

"GAZTEAK GAITASUN KRITIKO ETA PROAKTIBOA IZATEA BEHARREZKOA DA"



AMAIA ALBERDI

Gerorako bainua

Hasi da irakiten ura eta abian da erlojuaren atzerako kontaketa; azken potoen txanda da. Behin kontserba poto guztiak itxita eta izendatuta, amaitu dugu urte guztian hornituko gaituen egun osoko lana.

Sukaldea barazki kaxek estaltzen zuten gaur goizean, udaren azken ostikoen adierazgarri. Gure baratzean, jada, bukatu da tomatearen garaia, eta unean bertan kontsumitu ezin izan dugun tomatea, saltsa bilakatzen dugu. Saltsa ondo gozatu dadin, tipula eta piper mordo bat eransten zaio tomateari. Jarraian, su baxuan osagai guztiak prestatu eta nahastu egiten dira, poliki-poliki, tomate saltsa itxura hartu arte. Ondoren, kristalezko potoetan sartzen da egin berri den tomate saltsa. Eta bukatzeko, Maria bainuan murgiltzen dira kontserba potoak, tomate saltsa egoera onean mantendu ahal izateko denboran zehar.

Maria bainua erabilera askotarako tratamendu termikoa da; besteak beste, oso erabilia da etxean elikagai kontserbak egiteko. Kasu honetan, kontserba potoak denbora batez ur-borborretan murgilduta mantentzean datza Maria bainuak. Bi fase bereiz daitezke Maria bainuan:

berotzea eta hoztea. Batetik, berotzean elikagai kontserba beraren hedapena dela eta, potoan egon daitekeen airea kanporatzen da; eta bestetik, beroa tarteko, mikroorganismoak deuseztatzen dira. Hoztean, aldiz, elikagaiak jatorrizko bolumena berreskuratzen dute, eta sorturiko hutsunea beteko duen airerik ezean, hutsa sortzen da. Hala, elikagai kontserbaren itxiera lortzen da.

Elikagaien biziraupena luzatzea erronka handia izan da urte askoan zehar, eta horretarako, kontserbaziorako metodo ezberdinak –deshidratazioa, izoztea, gazitzea, gozotzea, hutsean ontziratzea, lehortzea...– garatu izan dira. Gaur egun, ordea, elikagaiekin dugun harremana egunean egunekoagoa da. Behar dugunean erosi eta kontsumitu, erosi eta kontsumitu, erosi eta... elikagaiekiko dugun menpekotasunari gehiegi erreparatu gabe. Gerorako ikuspegia ahaztu samar den honetan, heldu diezaiogun bertako eta garaiko elikagaiak kontsumitzeari, kontserbatzeari eta zaintzeari. Gainontzean: dagoenean bon-bon eta ez dagoenean, egon. ■■■



IGNACIO ARAKISTAIN

Musu truk

Pasiaz kolpatu nezake behatzek ezagun duten teklatura uda sasoiak utzitako zenbait gairi buruz nire ideiak zurian iraultzeko. Hauteskundeen arteko zubi bilakatu zen uda hasieraz mintza ninteke ala jardun irailako azken asteetan Donostiako Zinemaldian aurkeztu den dokumental batek harrotutako hautsez. Utziko nituzke tintontzian –zer erremedio– orain koofizial deituriko ama hizkuntzek jasotako bultzada edota etengabea zein isilpekoa den aldaketa klimatikoak beste behin erakutsi digun aurpegi krudela. Bateko bero bolada, besteko *Dana*.


Atsedenaldirik eskaini ez digun X, lehengo Twitter, sare sozialak garbi utzi digu saminik gordinenak zerk eragin dituen. Futbol federazioan gertatuak, gizarteak azalean itsatsia duen matxismoaren birusa berriro azalerazi du, pedagogia demokratikoko kontu bilakatuz musu baten itzalean ezkutatua zen botere oreka bidegabeko bat zuzentzea. Erruak erdibanatu nahi izana, biktima biktinario bilakatzea –txalo konplize artean– eta diru publikoz asetako postua ez uztea. Oro errukarria, birpentsatu beharrekoa. Balio beza guztiak isilean musu truk lanean dabiltzan emakume futbolari, teknikari eta zaleei estimu egiazko bat adierazteko. ■■■

-%30 GUZTIAN

Etorri gure supermerkatua ezagutzera eta
%30eko deskontua izango duzu GUZTIAN.
Bakarrik urriaren 15era arte. Ez utzi aukera hau pasatzen.



Promozioa urriaren 15era arte izango da baliagarria, Txerloia Auzoko 8. zenbakiko (Basterre poligonoa, Azkoitia) BM Supermerkatuan.
%, 30eko deskontua supermerkatuko produktu guztietan izango da baliagarria. Deskontua 10 €-ko barteletan emango da,
30 €-tik gora erosketetan trukatzeko, 2023ko abenduaren 31ra arte. Ezinbestekoa da BM Kontua izatea.



URRATEGI

INTERIORISMO

barne diseinua

PROIEKTUAK
OBRAK
BARNE DISEINUA

www.urrategiinteriorismo.com
Azpeitia Arretxe 9 Eibar Aragoeta 27